

**BASTERRETXEAREN *PASSIOA* KANTATZEKO
ERABILI DIREN DOINUAK**

JOSE ANTONIO ARANA MARTIJA

*Euskal Filologia karrera
aurten amaitu duen
Maiteder nere alabari.*

I

Erromualdo Galdos josulagunaren mendeurrena delata, aipamen bat egin nion azkenengo *Euskera* agerkarian (1), Basterretxearen *Passioa* kantatzeko eibartarrak 1928an eman zizkigun bi doinuak berrargitaratuz. Aipamen labur honek zeozer gehiago eskatzen zuen, nere hurrengo lan edo lanetarako, orduan idazke utzi nuena: Galdosen biografia, jaiotzaren mendeurrenean zor dioguna, Basterretxearen *Passioa* testu eta argitarapen aldetik aztertzea, eta azkenez, lekeitiarraren 61 bertsoak kantatzeko erabili diren beste doinu batzu biltzea.

Erromualdo Galdos Baertel (1885-1953) josulagunari dagokion biografia osatzeko beste eibartar bat ari da ikerlanean, Pedro Zelaia jauna, eta *Eibar* aldizkarian eman ditu lanaren laburpenak (2). Nik, nere Gernikako idaztoki honetatik, gure gai orokorrarekin zerikusirik daukan xehetasun bat eman nahi nuke. Aita Galdosek Gernikan, 1927ko Aste Santuan, *Passioa*-ren lehen bertsoa, *Jesukristori kendu ezker*o lerroarekin hasten dena, kantatua entzun zuen. Josulagunek Gernikan zeukaten etxean bizi zen orduan Aita Galdos eta gernikarrok badaukagu xehetasun honen lekukotasun ederra. 1927.eko Larunbat Gurenean, Apirilaren 16an, ekarri zuen Aita Galdosek Erromatik gure Andra Maria Parrokiarako, Alberto Brodzky poloniarrek egindako Bakartateko Amaren irudiaren berregiketa edo kopia, orain presbiterioaren azpian dagoen kriptan gordetzen dena. Bakartateko Ama Birgina honi ereserki bat zuzendu zion Galdosek, Jose Maria Beobidek ahots eta organorako harmonizatu zuena. Gero, urte bereko Abuztua-

(1) Jose Antonio Arana Martija: *Sebastian Antonio de la Gandara, Bizkaiko idazlea*. Euskera, 1984 - 2, 499-510 orrialdeak. Aipamena, 503-505 orrialdeetan. Idazki horretan egindako oker bat zuzendu behar dut hemen: Jose Antonio Uriarte esaten nuen tokian Jose Eugenio Uriarte irakurri behar da, frantzizkotarra barik josulaguna izan zen Basterretxearen berri eman ziguna eta.

(2) 1985.eko Otsailaren 7an eman zuen Eibarko Udaletxean hitzaldi bat, eta gero Eibar aldizkarian laburpenak, 269 zka. Otsaila, 2 orr., 270 zka. Martxo, 3 orr., 271 zka. Apirila, 3 orr., 272 zka. Maiatza, 3 orr., 273 zka. Ekaina-Uztaila, 2 orr.

ren 15ean, Jasokundeko Ama Birginaren aldare nagusia estreinatu zenean, meza nagusiko sermoia berak egin zuen.

Basterretxearen testua eta argitarapenen xehetasunak ematea beste baterako utzi beharko dugu, musika gaia ez baita eta gainera hemen txertatzeko luzea. Baina aurrera jo baino lehen esan dezagun Agustín Basterretxea ez zela ondo ezagutua idazle bezala Aita Galdos ikerlanetan zebilen garaian. Eusko Ikaskuntzak Oñatin antolatu zuen lehen Biltzarrean (1918) Juan Allende-Salazar gernikarrak eman zuen idazle honen berri: «La más curiosa obra euskérica publicada entonces (s. XVIII) en Vizcaya acaso sea el poemita, en estrofas de siete versos, acerca de la Pasión de Jesucristo, escrita por el P. Agustín Basterrechea, aquel poeta natural de Irpaster (sic) tan ensalzado por Cardaveraz: de este folleto hay varias ediciones bilbainas hechas en la segunda mitad del siglo XVIII». Izatez, XVIII. mendeko Pasioaren argitarapenetan ez da Agustín Basterretxearen izenik agertzen. Baten bakarrik, 1777an egindakoan, agertzen da liburuaren azalean «A. JHS B.» bibliografo guztien eritziz A eta B egilearen izen eta deituraren haserak direlarik. XIX. mendeko lehen herenerarte ez zaigu egilearen izena ematen, liburu honetan hain zuzen: *Yesucristo geure Yaunaren pasio santua: Aita Basterrechea Izpazter-tarrac ta Yesuiteac Guiputz-euskerazko bersoetan imini evana... Tolosan, Yoan Ignacio Mendizabalen echean, 1832 garren urtean*.

Ez zuen Aita Galdosek liburu hau ezagutzen, beste askok bezala, eta Passioa Kardaberazen lana zela uste zuen. Hala diosku 1928an argitara eman zuen liburu honen hitzaurrean: *IHS. Yosukisto gure Yaunaren / Ne-kaustea / euskerazko neurtitzez. Donostia, Irarkola Berria, 1928, Asteazken Donean* (1928.4.4). Liburu hau prestatzen zebilenean idatzi zuen lehen hitzaurrean (Oña, 1927.2.2), Passioa Kardaberazena zelakoan zegoen Aita Galdos. Gero, Oñan bertan idatzi zuen «Hitzaurrearen ondorengoan» (1927.2.28), Jose Eugenio Uriarte eta Carlos Sommervogel josulagunen-gandik (4) jakin zuela Basterretxearena zela Passioa aitortzen digu.

Baina, ipaztertarra ote dugu Agustín Basterretxea idazlea? Ala Lekeitioko semea? Orain arte eta honetaz banatuta ibili dira gure idazleak. Baina hare hemen zer dioen Lekeitioko Bateoen Liburu batek (5):

(3) Juan Allende-Salazar: *Bibliografía. Notas para la Historia de la Imprenta en el País Vasco-Navarro, leídas en la Universidad de Oñate el día 4 de Septiembre de 1918*. In «Primer Congreso de Estudios Vascos. Recopilación de los trabajos de dicha Asamblea». Bilbao, Bilbaina de Artes Gráficas Juan J. Rochelt, 1919, 644-671 orrialdeak. Aipamena, 656 orr.

(4) Carlos Sommervogel, S.J.: *Bibliothèque de la Compagnie de Jésus*. Tomo I (París, 1890), Col. 1069: *Baztarrica, Agustín*. Tomo II (París, 1891), Col. 729-732: *Cardaveraz, Agustín*. Tomo VIII (París-Bruxelas, 1898), Col. 1786: *Baztarrica, Basterrechea, Agustín*. Jose Eugenio de Uriarte, S.J.: *Catálogo razonado de obras anónimas y seudónimas de autores pertenecientes a la antigua Asistencia de España*. Madrid, 1904.-Jose Eugenio de Uriarte y Mariano Lecina, S.J.: *Biblioteca de Escritores de la Compañía de Jesús pertenecientes a la antigua Asistencia de Espuria*. Tomo I, Madrid, 1925.

(5) AHEV, Parroquia de Santa María de Lequeitio. Libro de Bautizados, Tomo 3 (de 1670 a 1735), fol. 117 vto. (Parroquia 53001, Doc. 26-1).

En veinte y cinco de nob.^o de mil y setecientos Baptize a A.^m. Clemente hijo leg.^{mo}. de Dn. Agustin de Basterechea y de D.^a Josepha de la renteria abuelos Paternos el Cap.ⁿ. Dn. Miguel de Basterechea y D.^a Ursola de Beingoolea maternos Dn P.^o ibañes de la renteria y D.^a marina de monteano Vez.^{os}. de esta villa (Padrinos) el Cap.ⁿ. Dn. Joseph de mendiola y D.^a Maria paz de Veingoolea = Liz. Aranzivia.

Argi eta garbi azaltzen zaigu agiri honetan Agustin Clemente Basterretxea Renteria Beingoolea Monteano Lekeition jaio zela 1700.eko Azaroaren 25ean. Heriotzaren datarik ez dut aurkitu ez Ipazter ez Lekeitioko liburuetan. Beraz, heriotzaren agiria agertu arte ontzat eman beharko dugu denek onartzen duten 1761ko urtea.

II

XVIII. mendearen erdi aldian idatzi zituen Basterretxeak Passioaren 61 bertso edo ahapaldiak. Ordutik hona, Aste Santuko elizkizunetan kantatuak izan dira Euskal Herrian zehar bai bizkaieraz, bai gipuzkeraz, doinu desberdinak erabiliez. Passioa, Pasioa, Pasiñoa, Pasiñoia, Nekaustea, eta besteren bat izan dira bertso famatu hauei jarritako izenburuak; *Passioa* da ezagutzen dugun zaharrena eta hemen darabilguna. Testua hainbat aldiz izan da argitaratua 1760 baino lehenagotik, bertso paperetan, liburuxketan edo beste idazle batzuen liburuen barnean (Kardaberaz, Olaetxea, Kana-laetxebarria, eta abar). Beraz, Passioaren testua oso ezaguna da, inprimatua izan baita.

Doinua, edo hobeto esateko doinuak, ostera: ez dira inprimatuak izan gure egunok arte. Euskal bertsoak beti dira kantatuak eta Basterretxearenak ere azken berrehun eta hogeitamar urteetan kantatuak izan dira, kantatuz iraun dute belaunalditik belaunaldira. Doinu bat idatzi gabe dagoenean tokian tokiko aldaketak izaten ditu. Eta poematxo bat, herriarentzat atseginarenean, beti izaten da musikegileentzat iradokitzaile. Beraz, denboraren edo musikarieren eraginez, hainbat doinu desberdin edukitzera heldu zaigu Basterretxearen Passioa.

Doinu hauen bilketaz lehen arduratu zena Aita Erromualdo Caldos izan zen. Oñako Ikastetxean irakasle zelarik, eta Passioaren egilea Kardaberaz zela oraindik uste zuelarik, beraz 1927a baino lehen, ezagunen artean galdepaperak banantzen hasi zen. Data gabe idatziak direnez gero, ezin dugu galdekizunaren data zehaztu. Aita Patxi Altunak eman zidan Erromualdo Galdosek Erraimun Olabideri zuzendutako galdepaperaren kopia bat, zera dioena:

JHS

En el canto vasco de la Pasión de Cristo (del P. Cardaveraz) que comienza
Jesu cristori kendu-eskero

1. ¿Conoce usted alguna melodía distinta de la que va transcrita al reverso de esta hoja? (Aita Arruek Mutrikun bildutakoa ematen du hemen Galdosek).

2. ¿Conoce usted (en la melodía misma) alguna o algunas variantes de la línea melódica o del ritmo, o alguna variante de duración en el compás?
3. ¿Tendría usted la bondad de enviarme estas variantes o aquella melodía transcritas clara y cuidadosamente en los pentagramas vacíos de la página del reverso?
4. ¿Podría usted añadir el pueblo de donde proceden las variantes o melodía por Vd. conocidas?

Agradeciéndole de antemano su bondad, quedo de Ud. afectísimo ss. y capellán.

Romualdo Galdos, S.J.
Colegio Oña (Burgos)

Ez dakigu erantzunik lortu bazuen, bat izan ezik. Lehen aipatutako bere liburuan, hots, 1928koan, bi doinu ematen dizkigu: bata, bizkaierazko bertsoei dagokiona, «Gernika-n artu eta Aboitziz-tar Kepa Yaupariak neuri bialdutakoa» eta bestea «Motriko-n artu eta «Arantzazu» deritzan ilero-koan Árue-tar Yoseba Abak argitaldua». Azken hau Arantzazu aldizkaritik hartu zuen zuzenean eta galdekizunaren bidez hartu zuen bakarra Aboitziz jaunarena izan zen.

Aita Galdos izan zen lehendabizi eta bereziki Passioaren doinuekin arduratu zena, baina egia esateko josulagunak baino lehenago argitara eman zituen bizpahiru doinu Azkue handiak bere Kantutegian. Eta argitara eman gabe geratu ziran lekeitiarraren paperen artean beste bizpahiru doinu, Azkue Bibliotekako Artxiboan gordetzen direnak. Azkuek argitaratutako bat eta gero Galdosek Gernikatik hartu eta argitaratu zuena berdin samarrak dira. Beraz, Passioari dagozkien doinuen argitarazleak kronologikoki Azkue (1922), Arrue (1925) eta Galdos (1928) izan dira. Hogeitamar urte beranduago (1959) Alfonso Irigoyenek argitaratu zuen berriz Azkuek eta Galdosek Gernikan bildutako doinuaren antzerakoa, oraingoan Aita Iturria frantzizkotarrak Balentin Enbeita bertsolariari entzundakoa. Guzti hauekin fitxak egin ditut eta neuk ere beste batzu bildu ditut hemen ematen dudan bilduma osatuz. Gehiago ere izango dira eta ezagutzen dituenari eskertuko nioke neroni igortzea edo zuzenean nonbaiten argitara ematea bilduma hau aberatsagoa izan dadin.

Esan dezagun hemen emandako doinuak era bitakoak direla. Gehienak bertso guztiak kantatzeko baliagarriak dira, eta pare bat edo, hamazortzigarren bertsoa bereziki kantatzeko egina da. Kardaberazek bere *Christauaren bicitza* liburuan (1760) sartu zuen Besterretxearen Passioa (365-389 orrialdeetan) eta hasieran zera diosku: «Emezortcigarren versoa Pauso bacoitzaren ondoren berriro esan diteque». Horregatik ahapaldi berezi hau kantatzeko doinu berezi bat behar zen, beste bertso guztiak kantatzeko erabiltzen zenetik desberdina. Bertso berezi hori Passiotik aparte ere kantatzen da beste elizkizun batzuetan.

Bertso guztiak kantatzeko baliogarri diren doinuak bi mordotan sailkatu daitezke: Gernikakoaren antzerakoak, Passioa bizkaieraz kantatzeko erabiltzen direnak, eta Mutrikukoaren antzerakoak, Passioa gipuzkeraz kantatzeko erabiltzen direnak. Doinu eta euskalkiaren adostasun hori ez da beti betetzen; esate baterako, Azpeitian gipuzkeraz kantatzen dena Gernika-

koaren antzerakoa da eta Zornotzan bizkaieraz kantatzen denak Mutriku-koarekin badu zerikusirik. Baina gehienetan euskalkiak eta doinuak ados datoz. Badago beste hirugarren mordo bat doinu desberdinak biltzen ditue-na. Eta azkenez laugarren mordo bat osatzen dute hamazortzigarren ber-tsoa, *Damu dot Jauna*, kantatzeko erabiltzen diren doinuak. Hau da ondo-ren ematen dudana sailkapenaren sistema.

I. GERNIKA ETA INGURUETAKOAK


1.- Azkuek eta Galdosek eman ziguten eredu hau. Hemen azaltzen den Passioaren lehen doinu hau Pedro Aboitz abadeak Galdosi igorritakoa da eta eredu bezala jartzen badut, orain ere berdin berdin kantatzen delako da:

Jesu kristori ken du ez ke ro
 pe ka tu a gaz bi zi tza
 bardin ez badot ne gare gi ten
 harriz ko a dot bi ho tza
 guz ti ok la gun
 a bestu dai gun
 be re pe nazko heri o tza

Pedro Rafael Aboitz Isasi izan zen Aita Galdosekin harremanetan ibili zena. Gernikan jaio zen 1890.eko Maiatzaren 19an eta Gasteizen eta Comillasen apaiz ikasketak egin ondoren 1914an eman zuen meza berria. Gernikako Karmeldarren Ikastetxean kaperatu izan ondoren, Andra Maria Parrokiako laguntzaile izendatu zuten 1940an. Gero, 1945ean, Durangoko Artzapeza izan zen 1967.eko Uztailaren 29an hil arte. Gernikako doinuak

ezagutzeko aukera ona izan zuen Aboitz jaunak. Doinu berau eskuratu zuen Azkuek, nik uste Seber Altuberengandik, baina ez zuen Kantutegian argitaratu, Gabikan bildutakoaren antzerakoa zelako. Baina Azkue Bibliotekako Artxiboan, Azkueren eskuiskribuen artean dago. Elantxoben ere doinu hau kantatzen zela diosku Aita Galdosek. Gure egunotan ere kantatzen bada baieztatzeko Elantxobera joan nintzan aurtengo Ekainaren 9an. Josefina Arrate Ansotegi andreak berdin berdin kantatu zidan. Zendokizko alaba da izatez andra hau, baina 28 urte duela bizi da Elantxoben, eta dioenez Arteagan ere doinu berdina kantatzen dute.

Muxikako Balentin Enbeita bertsolariak Aita Iturriari kantatu zion doinua berdina da, lehen pentagrama izan ezik. Alfonso Irigoyenek argitaratu zuen bertsoaren doinu osoa (6), lehen pentagrama desberdina hau delarik:



Je su kristo rikenduez ke ro

2.- Gabikako Dominga Aboitz andreari hartu zion Azkuek bigarren doinu hau, Kantutegian 760 zenbakia daramana (7). Gernikakoaren antzerakoa dela dio Azkuek, eta egia da. Gasteizen 1928.eko Azaroan Eliz Musikaren IV Biltzarra antolatu zenean, hitzaldi bat eman zuen Azkuek eta bertan Gabikako doinu hau kantatu zuen, gero Biltzarraren Liburuan argitaratuz (8).

Jesu kristori kenduez ke ro

peka tu a kinbizi tza

baldin ez padot negare gi ten

harritzko adot biho tza

(6) Euskal Kantuk, Euskaltzaindiaren ardurapean. Bilbao, La Editorial Vizcaina, 1959, 17. orr.

(7) Resurrección Maria de Azkue: *Cancionero Popular Vasco*. Bilbao, La Gran Enciclopedia Vasca, 1968, Tomo II, 873/874 orr.

(8) Resurrección Maria de Azkue: *La tradición en nuestra música popular religiosa*. In «Crónica del IV Congreso Nacional de Música Sagrada». Vitoria, Imprenta del Montepio Diocesano, 1930, 282-295 orrialdeak. Aipamena, 287 orr. Doinua agertzen da azken orrialdeetan, 9. zenbakia, (100) orr.



3.- Hirugarren doinua Markinan bildutakoa da. Aita Jose Domingo de Santa Teresa musikariak eman zidan bere ama Dolores Urkietarengandik hartua zela esanez. Hirugarren pentagramako bigarren konpasa hala aldatuz



eta azkenengo pentagrama Gernikako doinua bezala jarritz, lau gizonen ahots eta organurako harmonizapen eder bat burutu zuen Aita Jose Dominok. Hala kantatzen zuen Dolores Urkietak:

Jesukristori kenduez ke ro

pe ka tu a kin bizi tza

baldin ez padot ne gare giten

harrizko adot bi ho tza

guz ti ok la gun

kanta tu daigun

be re pe nazkoheri o tza

4.- Laugarren doinu hau Azpeitiatik datorkigu, gipuzkeraz kantatua, baina Bizkaian eredu den doinuarekin. Benantzia Bengoetxea Azkuek kantatu zuen eta grabagailuan hartu zion 1985.eko Maiatzaren 4an Patxi Altuna Bengoetxea semeak, Euskaltzaina denak, noski. Azpeitian jaioa da kantaria 1895.eko Maiatzaren 18an, eta berak dioenez, Zeledonia Azkue Urruzola amarengandik ikasi zituen bertsoak 1905 inguruan. Aita Patxi Altunaren amona hau Urnietan jaio zen (1856.3.3) eta Urretxun hil zen (1939.2.8). Nola Azpeitian aurkitu Bizkaiko doinu hau? Zeledonia Azkue amonaren senarra, Xalbador Bengoetxea, Bizkaiko Arbazegikoa zen eta behar bada Bizkaian ikasiko zuen emazteak bertako doinua, gero Benantzia Bengoetxea alabari irakatsi ziona. Baina, nola gipuzkeraz kantatu Bizkaian ikasitakoa? Bizkaiko doinua mantenduz, gipuzkerazko eguneroko hitzak jarri beharrez? Dena den doinuak aztertzen ari gara eta Azpeitian grabatutako doinu hau Bizkaitik joandakoa da.

Je su kristo rikenduez ke ro
 pe ka tu a kinbizitza
 baldin ez ba detne gar e gi ten
 ha rriz ko a dethiho tza
 guz ti ok la gun
 kan ta de za gun
 be re pe nazkoheri o tza

II. MUTRIKU ETA INGURUKOAK

5.- Passioa gipuzkeraz kantatzeko eredua dugu bostgarren doinu hau. Aita Jose Arrue frantzizkotarrak bildu zuen Mutrikun eta Arantzazu aldiz-

karian ezagutzero eman zuen (9). Jose Martin Arrue Galdos Aretxabaletan jaioa zen 1884an eta 1908an meza berria eman ondoren, Arantzazuko komentuan irakasle eta Musika Kaperaren zuzendaria izan zen. Berak sortu zuen Arantzazuko Musika Banda. Organolaria eta musikegilea ere izan zen. Berari zor diogu Oñatiko Biltzarrean, 1918an, eman zuen hitzaldia: «La música de iglesia en la Historia del País Vasco» (10). Aita Arruek 1925ean argitaratu emandako doinua Aita Galdosek berrargitaratu zuen 1928.eko liburuan.



6.- Kardaberazen itzulpena kantatzeko erabiltzen den doinu hori Euskal Herri osoan kantatzen dugu orain hiletetako liturgia berrian, zenari azken agurra eliz barruan ematerakoan. Mutrikuko ereduari aldaketa txiki

(9) José Arrue: *Euskal abesti eder bat*. Aranzazu, 1925, Abril, 48 zka. 114 orr. Hurrengo lau orrialdeetan Passioaren 61 bertsoak ematen ditu.

(10) In «Primer Congreso de Estudios Vascos» ob. cit. 845-853 orr.

batzu egin ondoren hala kantatzen dugu hiletetan Passioa kantatzeko balio-
garri den doinua:

Je su kris to ri ken du ez ke ro
 be ka tu a kin bi zi tza
 baldin ez pa det ne gar e gi ten
 ha rriz ko a det bi ho tza
 gu zi ok la gun kan ta de za gun
 be re pe naz ko he ri o tza

7.- Beste doinu bat ere erabili zuen Aita Galdosek, Aita Arruegandik hartu eta 1928.eko liburuan argitaratutakotik aparte. Esan dugunez, galde-
paper batzu banatu zituen, eta Aita Erraimun Olabideri igorritakotik eza-
gutzen duguna hau da

Je su kris to ri ken duez ke ro
 pe ka tua kin bi zi tza
 baldinez pa det ne ga re gi ten
 ha rriz ko a det bi ho tza
 gu zti ok la gun kan ta de za gun
 be re pe naz ko he ri o tza

8.- Azkueren Musika Artxiboan dago zortzigarren doinua, Oñatiko Uribarrin bildu zuena. Ez zuen argitaratu eta kantariaren izena ere ez da agertzen eskuiskribuan. Hizkuntzaz gipuzkera, dagokionez, erabiltzen bada, doinu aldetik ere Mutrikuko ereduarekin ados dator, puntiloiei esker bizkortasun bat adieraziz



9.- Oraingoan Gipuzkoatik Bizkaira datorkigu doinua baina bizkaierazko hitzekin kantatua. Zornotzako Maria Manuela Mendizabal andreak kantatu zion Azkueri eta argitaratu gabe geratu zen lekeitiarraren musika paperen artean. Kantari hau Gipuzkoatik Zornotzara etorritakoa ote zen? Ez dakigu. Azkueren eskuiskribuak hala dio:





10.- Hau ere Azkuek Zornotzan hartu zuen doinua da, eta argitaratua, Kantutegiaren 759 zenbakiarekin (11). Ramona Garamendi izan zen kantaria. Bizkaierazko hitzei Gipuzkoako doinua jartzen zion kantariak, eta xehetasun hau Azkuek ere nabaritu zuen, kantuaren ondoren idatzi bait zuen honako hau: «He recogido versiones, que apenas se distinguen de la publicada, en Zarauz y Oñate». Oñatiko hau ezagutzen dugu, nere bilduma honetako zortzigarrena hain zuzen. Baina Zarautzko doinua ez dut aurkitu Azkueren eskuiskribu artean. Beste ohar harrigarri bat jartzen dio Azkuek kantu honi: «El notable músico durangués P. Eust. Uriarte, O.S.A., me aseguró que en Filipinas cantan los tagalos esta melodía». Beraz Gipuzkoatik Bizkairainoko bidea baino askoz luzeago bat hartu zuen doinu honek tagaloen artean ezaguna eta kantatua izateko. Eustokio Uriarte agustindarra (1863-1900) ez zen Filipinasetan egon, baina bere ordenako fraideak bai, 1565an Andres Urdaneta agustindarra heldu zenetik. Passioaren kantua, doinua behintzat, fraide euskaldunen batek eraman zezaken XVIII. mendean gero Uriarteren lagunen batek entzun ziena.

Ohar dezehatz bat jartzen du Azkuek kantu honen ondoren: «El Poema de la Pasión, compuesto de setenta y dos estrofas de ocho versos, lo escribió un jesuita natural de Izpazter (B), llamado Barrenetxea». Aliquando quoque dormitat Homerus! esan dezakegu: Passioak ez dauzka 72 bertso, ez dira zortzikoak, egilea ez zen Ispazterrekoa, Azkueren herrikoa baizik, eta Barrenetxea ez zen egilearen izena. Ramona Garamendiri entzundako doinua hau da:



(11) Resurrección Maria de Azkue: *Cancionero Popular Vasco*. ob. cit. Tomo II. 872-873 orr.



Mutriku eta inguruetako doinuen mordoia zarratzeko hara hemen doinu berezi bat, Passioa kantatzeko balio ez duena baina orain arte emandakoen usaia daukana. Aita Nikolas Batiz karmeldarrak argitaratu zuen (12) Aita Jose Domingok lau ahotsetarako agindako harmonizapenarekin. Zortziko nagusia osatzen dute testu eta dagokion doinu honek, bertsolaritza tanke-razkoa izanik

Os ti ralsan tuz Gol go ta mendin

e na rak zertan ze bil tzen

Je su sen bu ru o dol uz tu an

a rantz zo rrotzak gu txi tzen

ai ne re Je sus mai te mai te a

nor be ti a ri li te ken

gu gai tik zauden gu ru tze por tan

zu re ne ke ak a rin tzen

III. BESTE DOINU DESBERDIN BATZU

1.- Bizkaia eta Gipuzkoako doinuak eman ditugu orain arte; baina Nafarroan ere kantatua izan da Basterretxearen Passioa. Lesakatik hasiko gara, Basterretxeak Passioa idatzi baino berrehun urte lehenago, Diego de San Pedroren *La Pasión trovada* antzeztu zen herri honetan 1566an eta (13). Azkuek bere Kantutegian zera diosku: «En Lezaca (Nabarra) he oído el canto de la Pasión con la misma melodía que la canción de los Sacramentos, núm. 79 de este mismo grupo» (14). Hemen daukagu beste lekualdaketaren kasu bat. Sakramentuen kantu hori Ipazterren entzun zion Azkuek Maria Juana Urteagari eta Passioaren hitzekin entzun zuen doinu berbera Lesakan. Ipazterretik Lesakara ala alderantziz ibili ote zen doinu hori? Ipazterreko doinuari Passioaren hitzak jarriez gero, hala geratzen zaigu Azkuek Lesakan entzun zuena:



12.- Nafarroako Altsasun gaude oraingoan. Maria Josefa Goikoetxeari entzun zion Azkuek doinu hau eta argitaratu gabe geratu zen eskuiskribuen artxiboan.



(13) Julio de Urquijo: *Del Teatro Litúrgico en el País Vasco. La Pasión trovada de Diego de San Pedro, representada en Lesaca en 1566*. RIEV, XXII, 1931, 150-218 orrialdeak. Basterretxearen Passioa ere argitaratzen du Urkijok lan honen azken orrialdeetan.

(14) Resurrección Maria de Azkue: *Cancionero Popular Vasco*. ob. cit. Tomo II, aipamena 874 orr. Sakramentuen kantua, 794 orr.



13.- Lekeition kantatzen zen doinua ematen digu Azkuek Kantutegian (15), eta Juan Maria Altunak idatzitakoa zelakoan zegoen Azkue. Aurreko hamabigarren doinua eta hamairugarren hau konparatuz, antzerakoak direla esan dezakegu, Altsasukoa tonu alaiean eta Lekeitioko hau ilunean direlarik. Ez dut uste Altunak doinu hau asmatuko zuenik, gero datorren hamaugarrena, bai, berak egindakoa da eta. Bestalde, Altsasukoa eta hau antzerakoak direlarik, susmo bat daukat eta hau da: Azkuek Altsasun hartutako doinua Nafarroako Barranka osoan kantatzen zena izan ziteken eta Huarte-Arakileko Felipe Gorritirentzat ezaguna. Gorriti eta Altuna Eslabarekin ikaskideak izan ziren Madriden eta Gorritirengandik ikasita Lekeitiora eraman zezaken Altunak. Idatzi ere egingo zuen organulari durangar honek jatorrizko doinua aldatuz; baina iturria Barrankan zegoelakoan nago. Hala balitz, hiru dira Nafarroatik datozkigun Passioa kantatzeko doinuak eta hirurak hankamotzak, Passioaren bertsoa ez da amaitzen eta.



14.- Hau bai dela Altunak asmatutako doinua. Nere artxiboan daukat musika paper bat, data gabekoa, zera dioena: «Canciones de la pasión de Jesu-Christo por Dn. J.M. Altuna». Ahots baterako, organoaren laguntzarekin egina da partitura. Juan Maria Blas Altuna Maskarua (1828-1868) du-


(15) Resurrección Maria de Azkue: *Cancionero Popular Vasco*. ob. cit. Tomo II, 873 orr.

rangarra zen eta Lekeitioko Andra Maria Parrokian organolaria zelarik hil zen. Hara eraman zuen, ene ustez, lehen aipatu dudan Barrankako doinua eta gero, behar bada, musikatuko zuen beste doinu hau paperetan azaltzen zaiguna:

Jesukristo ri ken du ez ke ro
 pekatu a kin bi zi tza
 baldinez pa detne gar e gi ten
 harrizko a det bi ho tza
 guzti ok la gun kan ta de za gun
 be re pe naz ko he ri o tza

15.- Lekeitiotik hurbil daukagu Ondarroa, Mutriku ere sortaldetik hurbil daukan herria. Ez zituen Azkuek Ondarroako kantu asko argitaratu, baina artxiboan badaude gehiago eskuiskribuz gordeta. Hauetariko bat da Eleuteria Laka andreak kantatu ziona, gipuzkerazko hitzekin. Ez dakigu noiz hartu zion Azkuek kantu hau Laka andreari, baina sasoi hartan badugu kantu honen lekukotasun bat gure literaturan. *Kresala* elaberrian aipatzen ditu Txomin Agirrek Arranondoko (Ondarroa) eliz ibilaldiak eta 1906an argitaratu zen liburu horretan esaten digu *Jesukristori kendu ezker*o kantatzen zela. Eleuteria Lakak Azkueri kantatutakoa hau da:

Je su kris to ri ken du ez ke ro
 pe ka tu a kin bi zi tza
 bal din ezpa detne gare gi ten



16.- Jose Mari Etxaburu («Kamiñazpi») adiskideari zor diot beste Ondarroako doinu hau. Bestearen garapen bat delakoan nago eta behar bada bigarren hau izango zen orain 25 urte arte kantatu zena, Etxaburuk dioenez (16). Alfonso Irigoyenek ere lehen aipaturiko liburuxkan zera diosku: «Ondarrun melismaz beterikako soñu bat dauko» (passioak). Zaila da benetan euskal kantu batek Ondarroako honek baino melisma gehiago izatea.



(16) Jose Mari Etxaburu: *Ondarru'ko Bertso ta Abestiak*. Makinaz idatzitako lana da, Azkue Bibliotekan 1981.12.31n sartu zena. Doinua, 44 orr.

17.- Aspalditik neukan bilduta Seber Altubek harmonizatu zuen doinu bat, zazpi ahots eta bandaren laguntzarako prestatua. Partiturarik ez zegoen eta Gernikako Musika Bandaren artxibotik atera nituen musikagailuen partizelak, eta ahotsenak ere, partitura osoa berrerraturaz. Passioaren 59. bertsoa zen kantuaren testua eta Altubek harmonizatutako doinua jarraian datorrena. Nondik hartuko zuen Altubek doinu hau ez dakit eta uste nuen berak asmatutakoren bat zela. Gero datorren hamazortzigarrena ikusirik, iturri batetik datozela esan dezakegu, beraz herri musika dela doinu hau:

Haustendirala harriakze lan
 dagoz bi hotzak osorik
 krutzeba te an do lorezhilten
 gu re bi zi tzaiku sirik
 pe ka ta riok
 gure be gi ok
 negari tu rri e ginik

18.- Aurtengo Ekainaren 19an aurkitu nuen Derioko Artxiboan Agustín Basterretxearen Bateo Agiria, eta ordurarte, gehienak bezala, Ipazterreko semea zela uste nuen. Horregatik bere jaioterriko doinua nahi nuen bilduma honetan aurkeztu. Hango Meza Nagusira joan nintzan igande goiz batez eta inork ez zekien Passio eta egilearen berririk. Beste oster bat egin nuen Ekainaren 9an eta bertako alabak diren bi aizpengandik lortu nuen doinuaren grabazioa. Maria Asun (1916.8.13) eta Dominga (1917.2.7) Bilbao Arrizubieta izan ziren jarraian doan doinua kantatu zidatenak. Basilia Arrizubieta Orbe (1889-1963) Ipazterreko amarengandik ikasi zuten Passioa kantatzen, eta honek beronen amarengandik (1858-1929), Ipazterrekoa hau ere, ikasiko zuelakoan daude. Felix Gallastegi Parrokoa herrira

etorri berria da eta ez daki Passioaren berririk, baina eliztarrek diotenez, eta adinekoak dira, azken 50 urteetan ez da halakorik Ipazterren kantatu. Dena den hau da Maria Asun eta Domingak kantatu zidaten doinua:

Je sukristori kendu ez ke ro
 pe katu a gaz bi zi tza
 bal dinez pa dot negar egi ten
 harrizko a dot bi ho tza
 guzti ok la gun
 kan tade za gun (sic)
 be re penaz ko he ri o tza

IV. «DAMU DOT JAUNA» HAMAZORTZIGARREN BERTSOA KANTATZEKO DOINUAK

19.- Altunaren «Canciones de la pasión de Jesu-Christo» aipatu ditut hamalagarren doinuan eta doinu hau bertso guztiak kantatzeko baliogarria dela esan dut. Doinu hau bukatzen den tokian zera dio Altunak: «Coro a la vuelta» eta hurrengo orrialdean dator «Damu dot Jauna», lelo edo errepika erara kantatzeko doinua. Hiru ahotsetara harmonizatu zuen Altunak doinu hau eta hemen agertzen dena tenorearena da, horregatik da hain gorengoa:

Da mu dot Jau na bihotzguzti tik
 zeu o fen di tu i za na
 ez ez ge hia go pe ka tu ri kan



20.- Passioaren hamazortzigarren bertsoa nahastuta kantatzen da Gernikan. Bertso horretatik lehen lau lerroak hartzen dira eta zortziko nagusi bat osatuz, beste lau lerro desberdin eransten zaizkio lehen zati horri. Neurritz zortziko nagusia bada ere, ez dira puntuak edo errimak zaintzen. Lehen zatia, Basterretxearena, beti kantatzen da bertsoen hasieran, eta bigarren zatia da bakoitzean aldatzen dena. Beraz, lehendabizi kantatzen denean, hala izaten da bertsoa.

Da mudotJauna bihotzguz ti tik
 zu nahiga be tu i za na
 ez, ez ge hia go pe ka tu ri kan
 neure Jaun goi ko laz ta na
 mi na ren mi nez Jesusmai te a
 daukat bi ho tza ler tu rik
 i ku si ri kan ne re bi ho tza
 da na pe ka tuz be te rik

Bilduma hau ez dela hemen amaitzen esan dut, eta bertan datorkigu lehen froga. Nahiz eta hogeï urte izan Graziano Anduagaren kontakizun eta bertsoak irakurri nituenetik, ez zuen orduan argitaratuta dagoen doinu hau nere fitxetan sartu, ez nuelako asmorik ere bilduma eta lantxo hau burutze-ko. Aita Luis Villasantek Graziano Anduagak Arantzazu aldean esan eta kantatutakoak *Aitonaren uzta* liburuan bildu zituen (Kuliska Sorta, 1961, 47-48 zenbakiak) eta Passioari dagozkion irazkin interesgarriekin apaindu (ikus 18-orrialdeak). Liburuaren bukaeran nere bildumaren 24. doinua den hau ematen digu:



Bigarrenez kantatu behar denean, doinu berdina erabiliz, hala osatzen da bertsoaren testua:

Damu dot Jaun bihotz guztitik
 Zu nahigabetu izana
 ez, ez gehiago pekatutikan
 neure Jaungoiko laztana.
 Zure oinetan orain naukazu
 begi bihotza urtuten
 barru barruko negar saminez
 parkazinoa eskatzen.

Hogei doinu desberdin eman ditut, eta gehiago ere izango dira Euskal Herrian zehar. Ikerketa sakonago bat egiteko toki gehiagotakoak beharko genituzke. Beraz, lan hau ez da hemen amaitzen.

Gernikan, 1985, Irailak 15

RESUMEN

Agustín Basterretxea, nacido en Lequeitio (Vizcaya), según acta que se acompaña, en 1700, y fallecido probablemente en 1761, compuso el poema titulado Passioa, en euskera. Dicho texto ha merecido la aceptación popular cantándose con múltiples variantes tanto en Vizcaya como en Guipúzcoa y Navarra. Se analizan veinte melodías, agrupándolas en cuatro grupos: las relacionadas con Guernica, con Motrico (Guipúzcoa), otras melodías, y las relativas al verso n.º 18.

SUMMARY

Agustin Basterretxea, born in Lequeitio (Vizcaya) in 1700, as stated on the herewith papers, and deceased most likely in 1761, composed the poem under the title of «Passioa», in Basque. Its words deserved popular approval ant they have been sung following multiple variants, both in Vizcaya and Guipuzcoa and Navarra. Twenty melodies are studied, making four different groups: those related to Guernica, Motrico (Guipuzcoa), other melodies and those related to verse n.º 18.